

noaia

**Martxoaren 12an,
Kike Amonarrizen
hitzaldia Potxoenean**

**Igandean, 'El Rey'
filma Sutegin**

Inauteriak, iruditan



80ko mugimendu feministako kideak

**“Ez genuen gure gurasoak bezala,
ezkondu eta etxeko andreak izan nahi”**

NOAUA! KULTUR ELKARTEKO BAZKIDEEN BATZAR NAGUSIA

MARTXOAK 13, ASTEAZKENA - POTXOENEAN

1. deialdia **18.00** / 2. deialdia **18.30**

GAI-ZERREDA:

- 1) 2018ko memoria eta balantze ekonomikoa
- 2) 2019ko egitasmoak eta aurrekontuak
- 3) Zuzendaritza Batzordearen osaketa eta onarpena
- 4) Galdera erantzunak

noaua



BAZKIDEEN TXOKOA



Martxoaren 7an ZOZKETATUKO dugu:

**SAIZAR
SAGARDOTEGIAN**

**2 LAGUNENTZAKO
afaria**

**NOAUAREKIN
TXOTXI!**

noaua! euskararen aterpe

Bazkide egiten bazara, opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan parte hartzeko aukera. 943 360 321 / elkartea@noaua.eus

Albisteak iruditan

Troiako tren-pasagunean barrerak jartzen ari dira

Troiako tren-pasagunea seguruago egiteko barrerak jartzen ari da ETS Euskal Trenbide Sarea. Oinezkoentzat eta txirrindularientzat segurtasuna bermatzeko lanean dihardu enpresak bere kabuz.

Udala kexu da trenbidearen arazoa nolabait konpontzen dutelako obrek, baina N-634 errepidea eta Ugaldea industriagunerako igarobiderentzat "behin betiko konponbidea" eskatu du. "Hobe barrerak jartzea, orain arte bezala jarraitzea baino, izan ere, garrantzitsuen oinezkoen eta txirrindularien segurtasuna da", azpimarratu du Xabier Arregi alkateak. Norabide horretan konponbidea bilatzea ezinbestekoa dela iritzi dio udal-gobernuak.



Barrerak ipini dituzte Troiako tren-pasabidean. N-634 errepideak ordea, lehen bezala jarraitzen du.

Laburrean

1968an jaiotakoen bazkaria, apirilaren 6an

Apirilaren 6rako antolatu duten hitzordurako whatsapp taldea osatu dute. Talde horretan norbait egon ez eta bazkarira animatzen bada deitu 696 411 683 (Bego) edo 666 872 818 (Ana) telefono zenbakietara.

1969an jaiotakoen kinto bazkaria

50. urteurren bazkaria irailean edo urrian ospatuko dute. Eguna eta tokia zehazteke daude baina dagoeneko talde bat hasi da ospakizuna prestatzen. Aurrerago eman go dituzte xehetasun gehiago.

1975ean jaiotakoen bazkaria, martxoaren 23an

Martxoaren 23an bazkari bat egiteko asmoa dute Saizar Sagardotegian. Animatzeko denak deitu edo mezu bat bidali dezala martxoaren 10a baino lehen: 653 728 059 (Haritz) / 655 73 89 04 (Olatz).

noqua

Kultur Elkarteak

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 // elkartea@noqua.eus // www.noqua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkariko koordinatzailea:

Imanol Ubidea.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,

publizitatea@noqua.eus

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noqua.eus:

Imanol Ubidea, Aritz Lasarte.

Banaketa: Iñaki Irazusta, Jon

Galbete.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldia,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Etxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herreria!



Imanol Ubeda

Liburu berdea

Luis Aranalderen joerarekin bat eginez, nik ere film bat aipatuko dut gaurko idatzian. Peter Farrelly zuzendariaren ‘Green Book’ ikusi genuen aurreko batean. Film onenaren Oscar saria irabazi berri duen horixe bera. Farrellyren pelikulak 60ko hamarkadara garamatza. Don Shirley pianojole beltzak bira bat egin behar du Amerikako Estatu Batuetako hegoaldeko hirietan. Xenofobia pil-pilean den lur muturra denez, bidea erraztuko dion txofer bat kontratatuko du, Tony Lip. Jatorri italiarreko gizon zuri bat. Datu aipagarri bat: filmak benetako istorio bat du oinarrian.

Don Shirley pianojolea aski ezaguna da New Yorken eta Etxe Zurian aritutakoa da. Bide berriak urratu eta zale berriak bereganatu nahi ditu ordea. Mugak apurtu. Merkaturak zabaltu. Nonahi libre sentitu. Baita beltzentzat hain arrotzak diren hirietan ere. Biriari ekin aurretik Don Shirleyk badaki ondo neurtu beharko duela urrats bakoitza. Bere azalaren koloreagatik, AEBeko hegoaldean seguruak diren ostatueta egin beharko du lo. Horretarako, ‘Liburu Berdea’ delako gida jarraitu beharko du. Beltzak ongi etorriak diren ostatueta zerrenda dakar liburuxka horrek. Hortik fil-

maren izenburua.

Aurreikusi zitekeen bezala, xenofobia pasarte askoren ispilu da filma. Amaiera txit hollywoodiarra du hala ere (hori ere, zine aretoan sartu aurretik aurreikusi genezakeen). Aktoreen lana ona da, istorioak badu mamia eta filmak erritmo egokia du. Zapore onarekin atera ginen zine aretotik.

Etxera bidean, kalkulu azkar bat egin nuen. Protagonistak nire aita zenaren garaikideak ziren. Beraz, ez dira hain aspaldiko kontuak. Nire kasuan, belaunaldi bateko aldea baino ez dago.

Eskubideen arloan asko aurreratu bada ere, lan handia

dago egiteko oraindik. Azkenaldian ordea, haizeak iraganaldetik jotzen du. Eta niri gaurko korrante asko ulertzeko gakoak falta zaizkit. Ziurtasun apurrak urtzen ari zaizkit eta bogan diren mugimendu asko ulertu ezinik nabil.

Egindako kalkulu azkar horrek gainera ez nau lasai uzten. ‘Green Book’ liburuko protagonistak nire aita zenaren garaikideak ziren. Duela 50 urteko lorpen horien aldamenean, intolerantziak askoz erro sakonagoak dituela konturatu naizelako. Hain segurutzat nituen kontu asko hain hauskor ikusten ditut orain...

Aroa Etxeburua Ugartemendia | Garazi Lizaso Manterola | **Imanol Ubeda** | Aritz Gorriti | Luis Aranalde | Luken Arkarazo

“Herriko emakumeekin batera aterako gara kalera Martxoaren 8an”

Belaunaldi ezberdinetako emakumeak elkartu zituen martxoaren lehen-ean Mikel Laboa plazan, EH-Bilduk deitutako agerraldiak. Guztiek bat egin zuten mugimendu feministak Martxoaren 8rako deitu duen grebarekin. Orain arte bezala, azpimarratu zutenez, “mugimendu feministarekin, herriko emakumeekin batera jarraitu nahi dugu lanean aurrerantzean ere. Eta, esan bezala, eurekin batera aterako gara kalera martxoaren 8an, berdintasunean oinarritutako jendartearen eta Usurbilen sinesten dugulako”.

Duela urtebete “inoiz baino gehiago azaleratu zen sentimendu hori berriro ere kalera aterako da Martxoaren 8an. Jendarte honen egiturazko arazoak konpondu gabe jarraitzen duelako. Eta gure gainean mehatxu berriak ditugulako, eta horiek



EHBilduk bat egin du mugimendu feministak Martxoaren 8rako deitu duen grebarekin.

behar bezala neurtzen eta erantzuten jakin behar dugu”.

Azken hamarkadetan kalean borrokatuz lortutako eskubideen aurkako mehatxuen artean aipatu zuten, Europa eta espainiar estatua “zeharkatzen ari den olatu autoritarioa”. Olatu honen jo puntu nagusietakoak, “gu geu, emakumeok

gara”. Agerraldian nabarmen zuten zutenez, “etxean nahi gaituzte, eskubiderik gabe. Egun garena baino okerrago nahi gaituzte, bigarren mailako herritar bezala nahi gaituzte. Baina izan dezatela argi: ez dugu onartuko eta merezi duten erantzuna emango diegu”.

Ezinbestekotzat jotzen duten

lekuan, kalean mobilizatuz eta mehatxupean diren eskubideen alde erakundeetan lan eginez. Milaka emakumerekin Martxoaren 8an ere kalean izango direla iragarri zuten, “beren egunerokoan eragina duten politika ekonomiko, sozial eta kulturaletan aldaketa sakonak aldarrikatzeko”.

Usurbilgo EAJ-PNV taldeak terrorismoaren biktimak errekonozituko dituen ekitaldian hartuko du parte

Terrorismoaren biktimak errekonozitu asmoz, elkarretaratzea egingo da martxoaren 11n Donostian. Usurbilgo EAJ-PNV taldeak bertan izango dela jakinarazi du. Ekitaldia goizeko 10:30ean egingo da Alderdi Ederreko lorategian, “Fue injusto-Bidegabea izan zen” lelopean. Josune Urkola bozeramaileak adierazi du ekintza hau “Eusko Jaur-laritzak antolatu duela Europar Batasunean terrorismoaren biktimeei eskainitako egunaren baitan”.

“Guztion zeregina da kultura politiko demokratikoa, bizikidetzara eta giza eskubideen aldeko ekimenak bultzatzea eta antolatzen direnatan parte hartzea”. Josune Urkolaren esanetan, EAJren helburua “bakea betiko eta modu atzerazinean finkatzen, bizikidetzara bideratzen eta Usurbilgo kultura demokratikoan sakontzen laguntzea da”.

Ildo horretan, Usurbilgo zinegotzi jeltzaleek giza eskubideak, biktimak, memoria, kultura demokratikoa eta gizarteratzea oinarri dituzten bost konpromisoak berretsi nahi dituzte.

Giza duintasunaren alde

Giza eskubide guztiak pertsona guztientzat aldarrikatzeaz gain, giza duintasunaren aldeko konpromisoa azpimarra-



Martxoaren 11n elkarretaratzea egingo da Donostian, ‘Bidegabea izan zen’ lelopean. “Giza eskubide guztiak pertsona guztientzat aldarrikatzeaz gain, giza duintasunaren aldeko konpromisoa” azpimarratu nahi du alderdi jeltzaleak.

JOSUNE URKOLA

“Guztion zeregina da kultura politiko demokratikoa, bizikidetzara eta giza eskubideen aldeko ekimenak bultzatzea”

tu nahi du Usurbilgo alderdi jeltzaleak: “giza eskubideen urraketa bakar bat ere ez aitoritzea eta ez justifikatzea, ez iraganean, orain edota etorkizunean”.

Biktimekin, salbuespenik gabe
Biktimen inguruan, “guztien

eskubideekiko konpromisoa aldarrikatzen dut”, adierazi du Josune Urkolak. “Salbuespenik gabe eta justizia eta erreparazioa jasotzeko eskubideei erantzunez”. Elkarriketan oinarritutako memoria partekatuen aldekoa da. “Bizikidetzari begira, biktimen sufrimenduarekin solidarioa eta irmoa giza eskubideen aurkako eraso ororen salaketarekin”. Honi lotuta dago martxoaren 11n Donostian egingo den elkarretaratzea.

Kultura politiko demokratikoa sustatzen jarraitu du EAJk, “izpiritu kritikoa duten herritar askez, desberdintasunak aitortuz eta errespetuz onartzen dituztenez, gatazkak

indarkeriarik gabe konpontzen dituztenez eta erantzukizun partekatuak beren gain hartzen dituzten herritarrez osatutako Usurbil bat nahi dugu”.

“Gizarteratzeko prozesuei gure laguntza eman nahi diegu”

Presoen gizarteratzearekiko konpromisoa ere bere egiten du Josune Urkola bozeramaileak gidatzen duen udal taldeak: “Lege printzipio eta printzipio humanitarioetan oinarritutako kartzela politika berri bat nahi dugu eta horretan ari direnei gure babesa eman nahi diegu eta legeak aurreikusten dituen gizarteratzeko prozesuei eta birgaitzeko neurriei gure laguntza emango diegu”.

Martxoaren 13an, adineko auzunearen proiektua azaltzeko lansaioa

Adinekoen egoitza berria egin asmoz dabilta Udala, Foru Aldundia eta Matia Fundazioa. Gauzak ondo bidean, 2021ean martxan behar luke. Hasieraz onartu du proiektu plan berezia Udalak eta jendaurrean azalduko dute martxoaren 13an Suteegin egingo duten lansaioan.

Ekitaldi honen helburua ez da soilik proiektuaren gaineko nondik norakoak azaltzea, baizik herritarrei lekua egitea ekarpenak egiteko. Bilera martxoaren 13an izango da, asteazkenean, arratsaldeko 18:30ean Sutegin, eta bertan izango dira Udala eta Matia

Fundazioko kideak. Proiektuarekin lantzen ari diren hitzarmen sozialaren xehetasunak emango dituzte, eta alderdi sozial hori ere herritarrekin lantzea da bileraren beste asmoetako bat.

Hirigintzaren ikuspegitik, mugikortasuna lantzea da

proiektuaren beste ardatzetako bat. Horretarako, N-634 errepideko autobus-geltokitik auzune berrira iristeko igo-gailua izatea bermatu nahi du Udalak. Hori ahalbidetuko duen proiektua eta finantziazioa lortzeko hartu-emanen ari da Udala Diputazioarekin.

Elkarretaratze isila, salaketa ozena

Duela urtebete egun be-rean egin bezala, herritarrek plazara irten ziren otsailaren 26an indarkeria sexista salatzerako, “Indarkeria matxistatik gabeko Usurbil nahi dugu. Emakumeok libre eta beldurrik gabe bizi nahi dugu!” aldarrikatzera. Usurbilen izandako azken erasoaren harira egindako mobilizazioan izan zen. Ertzaintzak ohar bidez jakitera eman zuenez, otsailaren 23an 16:30ak aldera 26 urteko gizonezko bat atxilotu zuen genero-indarkeria delitua egotzita. Aurrekariak zituen delitu horrengatik.



Erasoa salatzeko, udal zein foru ordezkariak eta herritarrek batu ziren Mikel Laboa plazan.

Eraso honen aurrean, Usurbilgo Udalak indarkeria sexistari aurre egiteko duen protokoloa aplikatu zuen, “pertsona erasotua ahalik eta ondoen artatzeko, bere intimitatea eta borondatea hasiera-hasieratik errespetatuz. Udalak hasieratik azaldu dio emakumeari babes osoa”, azaldu zuten Udalak berak eta mugimendu feministak otsailaren 26an Mikel Laboa plazan deitutako elkarretaratzean. Udal eta foru ordezkariak, eta herritarrek bildu zituen hitzorduaren bidez, ere “gure elkartasuna” adierazi zioten erasotuari, eraso bera salatzearekin batera. “Izan ere, argi dugu emakume bat erasotua, iraindua, jazarria den bakoitzean, jendarte bere osotasunean dela erasotua.

UDAL ADIERAZPENA

“Erroei heldu behar zaie, ezinbestean. Indarkeriaren prebentzioan egin behar da bereziki ahalegina, eta neska-mutilak, emakumeak eta gizonak, askatasunean eta berdintasunean hezikotuen hezkuntza sustatu behar da”

Horrengatik, argi dugu ezin dela eraso bakar batek ere geratu erantzunik gabe”.

Grebarako arrazoi bat gehiago
Indarkeria sexista lehen mailako arazo soziala dela ohartarazi zen mobilizazioan, ez gertaera isolatuak. Emakumeen

aurkako eraso eta jazarpenak giza eskubideen urratze larriak direla gogorarazten dute, “bai eta gizonen eta emakumeon arteko desberdintasun sozialen adierazpiderik bortitzena ere”. Gizartearen egitura sexista baten ondorioa dira eta denon erantzukizuna da matxismoari oinarritik aktiboki aurre egitea. “Erroei heldu behar zaie, ezinbestean. Indarkeriaren prebentzioan egin behar da bereziki ahalegina, eta neska-mutilak, emakumeak eta gizonak, askatasunean eta berdintasunean hezikotuen hezkuntza sustatu behar da”.

Arazoi bat gehiago elkarretaratzeko deitzaileen esanetan, ate joka dugun Martxoaren 8an “greba egin eta kalera ateratzeko”.

Greba feministarekin bat egin du Usurbilgo Udalak

Euskal Herriko Mugimendu Feministak Martxoaren 8rako deitu duen 24 orduko greba feministarekin bat egin du Usurbilgo Udaleko udalbatza osatzen duten EHBildu, EAJ eta PSE-ko 13 ordezkariak.

EHBilduk aurkeztu eta udal talde guztiek babesturiko erakunde adierazpena onartu zuten otsailaren 26ko plenoan. Erabaki honen bidez, aipatu moduan Martxoaren 8ko “grebara atxikitzea, eta erakundea osatzen dugun emakumezko hautetsi eta langileei greba egin ahal izateko erraztasunak ematea” galdegiten du mozioak, deituko diren mobilizazioetan herritarrek parte hartzerako gonbidatzearekin batera.

PSE: “Eraso bakoitzak milaka herritar mobilizatzen ditu”

Otsailaren 23ko eraso sexista gaitzetsi du Usurbilgo PSE-EE-k. NOAUA!ra erdaraz helarazitako prentsa oharrean dioenez, “sozialistok ezinbestekotzat jotzen dugu genero indarkeriaren aurka

azaltzea, lehentasun gai gisa mantendu eta biolentoak eta estaldura politikoa ematen dituztenak isolatzeko”.

Usurbilgo Udaleko PSE-EE udal taldeko bozeramaile Fermin Orueren esanetan, “genero indarkeria ez da

inoiz onargarria” eta halako kasuak salatzen ahalegintzea eskatu du. Usurbilgo herritarrek berriz ere indarkeria matxistaren aurka mobilizatzerako deitu zituen Oruek. “Hilketa bakoitzak, bortxaketa bakoitzak, eraso

bakoitzak, milaka herritar, emakumezko eta gizonezko mobilizatzen ditu kalean. Emakumeen aurkako indarkeria desberdintasunaren muturreko adierazpena dela argi duten emakumezko eta gizonezkoak”.

Ostiralean, greba feminista

Aldarri nagusiak:

“Martxoaren 8an emakume*, trans eta bollerok lan guztiak, soldatapeko zein doako lanak, egiteari utzi eta kaleak hartuko ditugu. Greba feministak bizitzako esparru guztiei aurre egiten die, indarkeriari, parekidetasun ezari, prekarie-tateari, sexualitate eredu hegemonikoei, lanen sexuaren araberako banaketari, kontsumo ereduari, familia patriarkalari, jakintzen hierarkizazioari, arrazakeriari, edertasun kanonari eta zapalkuntza guztiei”.

Bost ardatzak:

Pentsiodunak, ikasleak, zaintza, enplegua, kontsumoa.

Greba nola egin:

- 1- Lantoki eta ikasgeletan grebara batuz.
- 2- Herri eta hirietako mobilizazioetarako joanez.
- 3- Zaintzeari utzita eta hori irudikatzeko amantala balkoian



Grebaren inguruko deialdiak bideratzeko talde bat osatu da Usurbilen.

GREBA FEMINISTA

“Greba feministak bizitzako esparru guztiei aurre egiten die”

eskegita.

- 4- Besoko morea jantzita.
- 5- Greba antolatu eta zabaldua.
- 6- Merkatuan kontsumitzeari utzita.

Gizonen papera:

“Zure lekua etxeko eta zaintza lanetan dago”

- Aita bazara seme-alabez arduratu eta eztabaida zein ikasle greba lagundu.
- Emakume* lankideen lana egiteko zure burua eskaini edo eguneko soldata mugimendu feministari eman diezaiokezu.
- Enpresako nagusia bazara, enpresa itxi eta beharrezkoa

bada zaintza kolektiborako espazioa irekitzea ahalbidetu.

■ Eskolara joango ez diren emakume* ikaskideak eta ikasle- leen lanuztea babestu eta eskolak zaintza komunitarioko espazio bilakatu.

■ Emakumeok* ohituraz betetzen dugun zaintza lanaz arduratzen hasi.

■ Zaintza komunitariorako espazioak autonomoki sortu.

■ M8rako antolaturiko bazkari herrikoietan... lan egiteko zure burua eskaini.

■ Zabaldu mezua.

■ Ez kontsumitu.

■ Beste gizonaekin bildu zaitezte, maskulinitateen inguruan elkarrekin hausnartu, lan pertsonal eta kolektiboa egin, zuen pribilegioen kontzientzia hartu eta menderakuntzarik gabeko jendarterantz pausoak emateko.

Informazio gehiago:

grebafeminista.wordpress.com

Egitaraua

Martxoak 8, ostirala:

24 orduko greba feminista

- 09:30 Auzoetatik Dema plazara! Hitz egin emakume* bizilagun, auzotar eta gainerakoekin. Batera, bakarrik... Baina gogoratu 10:00etan Dema plazan geratu garena!
- 10:00 Dema plazatik Kaxkoan ibilbidetxo bat egin-gu.
- 10:30 Grebako bost ardatzen inguruan hausnartuko dugu (ikasleak, enpleguak, pentsiodunak, zaintza eta kontsumoa).
- 13:00 Kalejira alai eta zaratatsua! Emakumeok* heteropatriarkatu kapitalistari planto! Amaieran, argazki

erraldoia Dema plazan.

- 14:00 Bazkaria frontoian. Nork bere tuperra ekarri eta ingurukoekin elkarbanatu nahi izanez gero ere, primeran!
- Ondoren, bazkaloste giro-tua. Mikrofono irekia egongo da, herriko emakume artistentzat. Abesti batzuk kantatu, poesia errezipiatu, antzeztu... Aurrez izena eman telefono zenbaki honetan: 634 453 333.
- 17:30 Neska* gazteek akelarrea egingo dute eta herri gutzia dantzari jarriko dute!
- 19:00 Donostiako ekitaldia indartzera!
- Antolatzailea: emakume*

talde bat.

- Oharra: 12:30-14:30 / 16:30-18:00 Gizonaek talde batek antolatuta, umeentzako zaintza gunea Askatasuna plazan.
- Izen ematea: usurbilm8gizonak@gmail.com, Bordatxo, Txirrista eta Aitzaga tabernak. Zaintza zerbitzuko haur bakoitzak bere bazkaria eraman beharko du.

Martxoak 10, igandea

- 10:30 30. Lilatoia Donostiako Bulebarretik.
- Informazio gehiago: lilaton.es

Martxoak 16, larunbata

- 10:00 Autodefentsa feminis-

ta ikastaroa Potxoenean. Formatzailea: Maitena Monroy.

■ Izen ematea: Parekidetasun Saila, parekidetasuna@usurbil.eus, 943 377 110.

■ Antolatzailea: Udal Parekidetasun Saila.

Martxoak-maiatza

- Batukada feminista ikastaroa, martxoaren 15ean, 15ean, 29an, apirilaren 12an eta maiatzaren 10ean eta 24an, 17:00-19:00 artean, Udarregi Ikastolako erdiko aretoan.
- Izen ematea: Parekidetasun Saila, parekidetasuna@usurbil.eus, 943 377 110.
- Antolatzailea: Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Saila.

“Gure babesa azaltzen diogu Martxoaren 8ko 24 orduko grebari”

Pentsio eta bizi duinen alde mobilizatu ziren hilerero moduan, Usurbilgo Gure Pakea, Santueneko Gure Elkartea eta Aginagako Arrate jubilatutako elkarteek deituta otsailaren 28an Mikel Laboa plazan. Oraingoan, ate joka dugun Martxoaren 8ko greba feministari babesa adierazi zioten.

Greba feministaren ardatzetako bat dira pentsiodunak. Urtarrileko mobilizazio amaieran, emakumeak eta pentsioak izan zituzten hizpide, “garrantzia handiko taldea osatzen dugu” adierazi zuten. Eremu guztietan eragiten duen genero arrakala hartu zuten ahotan. Bizitzan zehar diru-sarrerak txikiagoak izateak, gero pentsio txikiak izatea dakar, eta horrek “pobreziarako arriskua handitzen digu”.

Are gehiago, zaintza eta etxeko lanetan jarduten diren emakumeen kasuan. “Era



Pentsiodunen esanetan, “2013an emakumezko etxeko langileen ordaindu gabeko lana BPGaren ia heren bat zen”.

PENTSIODUNAK

Bizitzan zehar diru-sarrerak txikiagoak izateak, gero pentsio txikiak izatea dakar, eta horrek “pobreziarako arriskua handitzen digu”

askotako lanak egin beharra eta injustiziazko soldata eta kotizazioz gaizki baloratua”, izaten dute. Hainbat datu sala-

garri plazaratu zituzten. Espainiar estatua etxeko langileak lan merkatu formalean ez dituen Europar Batasuneko bosgarren herrialdea da. 2013an emakumezko etxeko langileen ordaindu gabeko lana BPGaren ia heren bat zen.

Estatuko lanik gabeko emakumeen “%25,1ek dio ez daudela prest lan baterako eta zaintza lanengatik ez dutela lanik bilatu ere egiten, ez kotizatzeak zahartzaroan nolako

ondorioa izango duen jakin arren”. Euskal Herrira etorrita, emakume pentsiodunen batz besteko pentsioa %44koa da, pentsiodunen %45a alargunak eta “hauetatik %70 pobrezia- atalasearen azpian bizi dira”.

Mobilizatzen

segitzeko konpromisoa

Orain arteko konpromisoa berretsi zuten pentsiodunek joan den asteko elkarretaratzean. “Guk gure elkarretaratze eta manifestazioekin jarraituko dugu, gure aldarrikapenak datozen hilabeteetako agenda sozial eta politikoetan sar daitezen”. Apirilaren 13an eta maiatzaren 11n mobilizazio egunak izendatu dituzte Hego Euskal Herrian. Hilero azken ostegunetan Usurbilen Mikel Laboa plazan biltzen segituko dute 19:00etan. Eta datozen hauteskundeetan atarian, gogorazi zuten, “nornahik gobernatuta ere pentsioak defendatu egin behar dira”.

Ugaldea industriagunea eraberritzeko bidea ireki dute poligonoko jabeek eta Udalak

Ugaldea industriagune-ko jabeek elkarte bat sortu dute industriagunea eraberritzeko asmoz: Usurbilgo Ugaldea Poligonoko Elkartea, hain zuzen. 19 jabeek osatzen dute elkarte, baina falta direnak batuko direla espero dute kideek. Xabier Arregi alkatearen hitzetan, asmoa ez da industriagune berri bat egitea, baizik eta zonalde degradatu bat modu duinean txukuntzea, bertako jarduera ekonomikoa baldintza onetan gara dadin.

Udalak eta Ugaldeako



Asmoa ez da industriagune berri bat egitea, baizik eta zonalde degradatu bat modu duinean txukuntzea.

eragile ekonomikoek “ezin bestekotzat” jotzen dute industriagunea XXI. mendeko

parametroetara egokitzea, eta herriak kalitatezko jarduera ekonomikoak izatea.

Lehen urratsa industriagune-ko beharren azterketa egitea izango da, eta horren ardura- dun izango da Gabiria & San Juan Gestion y Fincas SLP enpresa. “Orain artean, enpresa edota jabe bakoitza bere aldetik aritu da bere lantegiaren ingurua, hala moduz, txukuntzen, elkarren arteko koordinazio eta elkarlanik gabe, ikuspegi orokor eta integral baten faltan”, azaldu du Iker Beristain Ugaldeako Elkarteko presidenteak. Behin azterketa amaitzean ikusi beharko da zein norabidetan eman hurrengo urratsak.



*Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!*



Santuenea,
Telf: 943 36 50 31

SAGARDOTEGIA

Tapa eta aurkibidea K prest



Agur esan diogu 2018 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2018ko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok azala eta aurkibidea doan jaso ditzakezue NOAUA!ko egoitzan.

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, **Lizardin** edota **Lauroken** egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.

**ORAIN....
ETXERAKO ZERBITZUA DOAN!**
ETXERA, BASERRIRA, EDO ENPRESETARA!
(20 €ko erosketatik aurrera)



GURE DENDAKO PRODUKTU GUZTIETAN! EGUNEROKO EROSKETAK, ASTEROKOA...



ESKAERAK: telefonoz 943 36 55 81

677 64 27 76 edo email: otargoxo@gmail.com

Otar-GoXo
Elkargak

“Gaur egun asko dago egiteko, baina orduan dena zegoen egiteko”

Emakume talde hura “ez zen handia, baina bai bizia eta dinamikoa. Bere helburua gizartea emakume gaiei buruz sentsibilizatzea zen. Helburu horren baitan, gai asko jorratu ziren eta guztiak mami handikoak: tratu txarrak, abortua, emagin zerbitzua”. 1997ko martxoaren 7ko NOAUA!tik jaso ditugu hitzok. Urte hartako Martxoaren 8aren bueltan argitaraturiko artikuluak gogorarazi zigun herri honek izan zuela mugimendu feminista bizi askoa 80. hamarkada hasieran. Lan itzela egin zuena, egungoa baino garai ilunagoetan.

Zortzi bat emakumeez osaturiko taldeko lau kideekin hitz egiteko aukera izan du NOAUA!k, Martxoaren 8 honen atarian: Garbiñe Errekondo, Marije Furundarena, Marisa Alejandro eta Arantxa Enetarriagarekin.

Lehendik elkar ezagutzen zuten lagun taldea zen. Hainbat kezka partekatzen zituzten. Eremu honetan, Furundarenak adierazi digunez, “Usurbilen hutsune bat zegoela eta beste herrietan mugitzen ari zirela ikusita”, antolatu beharra ikusi zuten.

Gai ugari lantzeke

Tratu txarrak, sexualitatea... lanketarako gai gisa hartu zituzten. Baita nahigabeko haurdunaldiak eta abortuaren gaia ere. “Horren inguruan planifikazio zentroak sortu ziren beste herrietan eta halako zerbait herrian izatea ondo legokeela” irizten zioten. Gai guztiok jorratzen hasi ziren. “Irakurri, formatu eta gure artean eztabaidatu, plazaratu eta partekatzen saiatu ginen”, oroitzen du Marisa Alejandrok.



80. hamarkadako mugimendu feministako kide batzuekin batu gara.

MARISA ALEJANDRO

“Janzkera zela, anai arreben artean etxean izaten ziren desberdintasunak... Gauza guztiok borroka gai izaten ziren etxean”

“Emakumeok ikusezinak ginen”

Aipatzekoa taldea sortu zen garaia. “Garai ilunetatik gendotzen”, guztia debekatu zegoen garaitik, Furundarenak gogoratzen duenez. “Debekatuak zeuden sexu harremanak libreki izatea, debekatua zegoen abortua, emakumeok ikusezinak ginen”. Egun bakoitza, borroka egunean bilakatzen zen. “Janzkera zela, anai arreben artean etxean izaten ziren desberdintasunak... Gauza guztiok borroka gai izaten ziren etxean”, Marisak oroitzen duenez.

Emakume jaio zirenez, etorkizuna guztiz bideratua zutela nabarmen zuten, emakume jaio izanagatik soilik. “Ikasketak egitea posible zen, lana

bazen lantokietan, baina oso garbi genuen lan bikoitza izan beharko genuela”, Marijeren esanetan. Etxetik kanpo ikasi edo lan egin, eta etxeko arduraren eta zaintza lan guztien ere emakumeen esku izan behar zuten, arrazoi bakar batengatik, “emakume jaio ginelako”.

Talde honen borroka tesuinguru honetan sortzen da, “guk ez genuen gure patua zena, emakumeak etxeko lau hormetara mugatzea nahi. Espazio publikoak okupatu nahi genituen, politikan parte hartu, kalean ere nor izan, beste esparruetan ere bai”. Horretarako eskubide oso osoa zutela argi zuten; “ez genuen gure gurasoak bezala, ezkondu eta etxeko andreak izan nahi”.

“Zertaz kexatzen zarete?”

Garai hartako Usurbilek taldea nola hartu zuen galdetu diegu. “Emakumeentzat beste bizitza mota bat aldarrikatzen genuen pertsona arraroak ginen. Oroitzen dut baten batzuek eginko komentarioa, zuek zertaz kexatzen zarete?”.

“Halako foroak izatea falta da”

Etorkizunean emakumeon taldea nola oroitzen behar genukeen galdetu diegu. “Ikuspegi feministatik ekitzatzak antolatu eta jendea pentsatzen, galderak egiten hastea bultzatu zuen lehen mugimendua izan zen herrian”.

Orduko mugimenduak jarraipena izan du

Talde honek irekitako bidetara jarraipena emateko saiakerarik izan da gerora. Matrakak duela urte batzuk, egun Udaleko Parekidetasun Sailak bideratzen duen lanketarekin batera, Aztarrika gazte mugimenduaren baitan ere bada ildo feminista, emakume* talde bat Martxoaren 8rako lanketa betean dabil asteotan. Usurbilek mugimendu feminista antolatua izatea behar duela irizten diote, “halako foroak izatea falta da”.

“Zure etxea, zure kartzela da”

2019tik duela hiru hamar-kadako errealitateari errepasoa egiterakoan argi dio Garbiñek, “gaur egun asko dago egiteko, baina orduan dena zegoen egiteko. Dena”. Oinarritzkoena ere falta zuten, informazioa. Behar edo premia handiena sumatzen zuten horretatik abiatu zuten lanketa; antisorgailuen gaia jorratuz. “Guk geuk ezagutzen ez genituen antisorgailuak zeuden merkatuan. Hortik hasi ginen pixkanaka zabaltzen gure mezua edo ideologia feminista”, Errekondoren esanetan. Anbulatorioan gai honi lotutako informazio kartela eseki zuten.

Usurbilek familia planifikazio zentro bat izatea ezinbestekotzat jotzen zuten, hortxe talde honen beste lan ildo. Eta oso argi oroitzen duten sentsibilizazio kanpaina. “Zure etxea zure kartzela da” kanpaina egin genuen”, emakumeek kanpoan lan edo ikasteaz gain, etxe barruko zaintza eta lan guztiez arduratu behar izaten zutela salatzeke. Herrian zeresana eman zuen ekimenak. “Ika-mika eragin zuen zure etxea zure kartzela zela esateak, jendea kartzelan zegoela esateak. Hori barneratzea oso gogorra izan zen”, Arantxa Enetarriagak dioenez. Are gehiago, herri txiki batean. Marisak kanpaina haren helburua azaldu digu. “Emakumeak, etxean geratzen baziren, familia guztiaren zaintzaileak izango zirela kontzientziatu nahi genituen. Hori ez zen ulertu hala, emakumeok etxea utzi behar genuela, modu horretan baizik”.

Lanik egin ez zuen emaginarena

Taldeak herrian izan zezakeen onarpen mailak inflexio puntu garrantzitsua bizi izan zuela kontatu digute, garai hartako emagin zerbitzuarekin. Usur-



Herrira begira denetariko ekimenak bideratu zituzten.

GARBIÑE ERREKONDO

Oinarritzkoena ere falta zuten, informazioa. “Guk geuk ezagutzen ez genituen antisorgailuak zeuden merkatuan. Hortik hasi ginen pixkanaka zabaltzen gure mezua edo ideologia feminista”

bilek urte luzez, inork jakin gabe, zegokion lana egin ez eta halere soldata kobratzen aritzen emagin bat izan zuen. Sinadurak bildu eta udalean ere aurkeztu zuten mozioarekin lortu zuten emagina bere lanpostutik kendu eta ordezkioa jartzea.

Herriaren alde eginiko lan honen aurrean, “jendea gurekiko beste ikuspegi bat izaten hasi zen, nolabaiteko onarpen bat jaso genuen”, Marijek azaldu digunez. Marisak dioenez, “niretzat kasu honek argi utzi zuen, emakumeon gaia izanik, emakumeok borrokatu genuela eta hori da garrantzitsua, zuri dagokizun eskubide bat borrokatu eta lortzea”.

“Begiak irekiarazteko”

Herrira begira denetariko ekimenak bideratu zituzten. Oinarri oinarritzko gaiak, emakumea izatea zer zen, feminismoa, nora zihoazen hizpide zuten hitzaldiak anto-

latu zituzten. “Emakume asko etortzen ziren”, Errekondoren esanetan. Oinarri oinarritzko gaiak hartzen zituzten ahotan. Guztia helburu nagusi batera bideratua zegoen; “begiak irekiaraztera”.

Autodefentsarako ikastaroak antolatu zituzten Agerialden, OTANen borroka pil-pilean zenean emakume desmilitarizatuak aldarrikatzen zituzten, antzezlanak, filmak, ikuspegi feminista jorratzen zuten literatura saio arrakastatsuak hilero... “Hausnarketarako liburuak izaten ziren. Liburu horiek emakume asko bizi-tzen ari ziren egoerak islatzen zituzten. Eta horren aurrean emakumeek barrua askatzen zuten, familian bizitzen ari ziren egoerak kontatzeraino”, Enetarriagak oroitzen duenez.

Usurbilgo baserritarrek ere bilera egin zuten. “Kotizatu gabe lan egiten zuten. Haien eskubideez informatzera etorri zen Maite Aristegi”. Usurbilek izandako Pagotxa irrati librean Muxurdinak izeneko irratsaioa ere izan zuten hilean behin. Bertara eraman nahi izan zuten herriko elkarteetan bizi zuten errealitatea. “Elkarteetan ezin zen bazkide izan emakumea. Gu bazkide izateko ahots asko zeuden aurka. Berririo sukaldean zertarako sartu nahi genuen, horren kontra ez al geunden galdetzen zuten”, oroitzen du Marijek.

1984ko Martxoak 8

Martxoaren 8a heltzen zenean Emakumearen Astea antolatzen zuten denetariko solasaldi, antzezlan edota afarien bueltan. 1984ko Martxoaren 8aren harira, bi egun beranduago, hilaren 10ean bertso saio historikoa antolatu zuten. “Emakumeen lehen bertso saioa izan zitekeena antolatu genuen. 15-16 urteko bost emakume bertsolari gazte ekarri genituen”. Ainhoa Beola, Arantzazu Loidi, Itziar Sagastume, Nekane Soria eta Maite Iribar. “Saioak eman zuen zeresana. Gu oso pozik ginen, plazan emakumeen irudiak behar genituen. Begira gerora ze bilakaera izan duen”, adierazi dio NOAUA!ri Marije Furundarenak.

2019ko Martxoaren 8aren atarian gara. 24 orduko greba feminista deitua dago. Deialdi honen bueltan, “mugimendu feminista oso indartsua dela iruditzen zait, hau geldiezin da”, Arantxaren esanetan. Mundu mailako mugimendu anitza.

Oraindik asko dago egiteke ordea. Zaintza eta etxeko lanek emakumeen esku egoten segitzen dute. Horrekin batera, “bizitzako aspektu guztietan gizonezkoek baino gehiago demostratu behar dugu”, Arantxaren esanetan. Ildo beretik mintzatu da Marije. “Oraindik nire eskubideak aldarrikatzen jarraitu behar dut. Ez da erraza, emakumeoi eskubideak ez datozkigu emanak”.

Garbiñeren esanetan, “mundu okzidentalizatu honetan, pausoak ematen ari garela dirudi eremu batzuetan, baina oso pauso txikiak dira”. Lortutako eskubideak defendatu eta lortzeke dauden alde borrokatzen segi beharra aipatu digute. Formakuntza integrala ezinbestekotzat jotzen dute, besteak beste, indarkeria sexistari aurre egiteko, sistema kapitalista kolokan jartzearekin batera. “Sistema aldatzeko borrokatu behar dugu”.

“Plaza batean emakumeok bertsotan aritu ginen aurrenetako aldia omen zen”

Espetxean segitzen duten Altsasuko gazteen gurasoek antolaturiko bigarren literatura lehiaketan saritu dute Usurbilgo Udaleko euskara eta kultura teknikari Maite Iribar berriki, deialdira aurkeztu zuen “Amari” poesia lanagatik. Sari honen harira Maite elkarrizkatzen ari ginela, berak eta herri honek bizi izandako une historiko baten berri eman zigun. Emakumezkoen lehen bertso saioa izan zitekeena antolatzen aitzindari izan omen zen Usurbil, 1984ko martxoaren 10ean. Hitzordu hark, Maite Iribar, Ainhoa Beola, Arantzazu Loidi, Itziar Sagastume eta Nekane Soria jarri zituen kantuan. Ekitaldia aldizkari honetan elkarrizketatu dugun garai hartako Usurbilgo emakumeen talde feministak antolatu zuen. Bi gaion harira elkarrizketatu dugu Maite lerrootan.

NOAUA! Zerk bultzatu zintuen Altsasuko literatura lehiaketara aurkeztera?

Maite Iribar: Batetik Altsasuko gaiarekiko elkartasunak. Lehiaketaren berri izan nuenean, elkartasuna adierazteko modu bat iruditzen zitzaidan. Bestetik idaztea ere gustuko dut, aukera



1984ko martxoaren 10ean bertsotan aritu zen Usurbilen. Garai hartako talde feministak antolatu zuen bertso-saioa.

**MAITE IRIBAR,
ALTSASUKOAK ASKE
LEHIAKETAN SARITUA**

“Aukera polita ikusi nuen zerbait idazteko eta kartzelako gaia ere oso gertukoa zait”

polita ikusi nuen zerbait idazteko eta kartzelako gaia ere oso gertukoa zait. Hiru osagai horiek izan ziren idaztera bultzatu nindutenak.

Zer dio zure sortze lanak?

Kartzelan dagoen gazte horren tokian jartzen naiz eta bertatik nola ikusten duen kanpoko mundua. Poesiak hiru atal ditu. Lehen atalean ama bisitan etortzen zait, oso gaizki ikusten

dut eta horrek niri zer sortzen didan. Bigarren nire sentimenduei buruz jarduten naiz. Gorrotoa, ez dut ulertzen zer gertatzen den, zergatik nagoen bertan. Hirugarren nire berriz, amari bi musu bidaltzen dizkiot kartzelatik Altsasura. Halako lehiaketa batera aurkeztu naizen lehenengo aldia izan da.

Halako lan bat sortzen duzun lehen aldia ez ordea. Aspalditik duzu idazteko zaletasuna?

Aspalditik datorkit. Gazteetan idazten nuen. Gero emakumeoi askotan gertatzen zaigu, askotan gure barruari kasu egiteari uzten diogu. Urte batzuk pasa ditut familia eta laneko zereginetan, nire barruari gehiegi begiratu gabe.

“Zoragarria izan zen Altsasun bizitakoa”

NOAUA! Zure sortze lana Altsasun bertan errezitatu zenuen. Nola bizi izan zenuen une hura?

Maite Iribar: Altsasura familian joan ginen. Antolatzaileen aldetik sekulako lana aurkitu genuen, dena mimoz zaindua, aurkezle zoragarriak ekitaldia bezala. Zoragarria izan zen Altsasun bizitakoa. Oiartzungo lagunak etorri ziren isilpean, tarta batekin. Oholtzara igo aurretik ederra izan zen, haien maitasuna jaso nuelako. Ohar bat egin behar dut, Altsasun bertan

esan zen ni oiartzuarra nintzela, gerora usurbildarra naizela. Añorgatarra naiz, Errekaldekoa.

Altsasun bertan zer giro sumatu zenuen?

Azkenean errailetan sentitzen duzuna da hemen zer nolako injustizia dagoen, hori da ateratzen zaizun lehen sentimendua. Gero gurasoak ikusten dituzu eta esaten duzu eta zer ote da hau dena eramatea? Oso gordina egiten da hori dena. Elkartasun hori adierazteko bako-

tzak bere modura egingo du eta niri idatziz atera zitzaidan.

ALTSASUKOAK ASKE!

AMARI

Altsasutik Sotora, AMA, bisitan nigana, hau dugu hau drama! Zu triste ikusteak zulora narama. Nola arindu zuri zauri honen zama?

Kartzelako ateen ORRUA.

“Gu bost emakume kantari eta ingurua gizonez bete”

NOAUA! Jendaurrean arituta zara lehenago?

Maite Iribar: Gaztea nintzela idazten nuen. 15 urterekin sari bat irabazi nuen eta hura argitaratu egin zen. Duela gutxi, liburu hura berreskuratu eta irakurtzeko aukera izan dut. Oso polita izan da niretzat. Bertsotan ere ibilitakoa naiz bere garaian. Bitxikeria gisa, Usurbilgo frontoian, aurreneko aldia omen zen plaza batean emakumezkoak kantatzen genuena. Emakumeen Egunaren harira izan zen Usurbilen. Bertso haiek grabatuak daude, noizean behin irratiaren emititzen dituzte. Akordatzeko naiz frontoian azaltzearekin batera, frontoia gizonez bete zela. Gu bost emakume kantari eta inguru guztia gizonez bete. Inpaktu handiko kontua izan zen orduan. Ordutik gauza asko aldatu dira. Gerora bertsotan ez nuen segitu, garai hartan Hernanira joan behar zen zerbait egin nahi bazen, erabat gizonen mundua zen bertsoena eta ez nuen pausorik eman. Nire jatorria bertsotan dago gehiago. Bertso eskolan ibili nintzen Santo Tomas Lizeoan. Gustatzen zait mundu hori. Orain horretan ere tentatua nago.

Amaren marrua, barne amorrua: Non dago deabrua?

Non dago errua? Hau eragin duenak nola du barrua?

Sototik Altsasura
AMARI BI MUSU.
Egin niri kasu,
Ama, entzuidazu:
gau ilunak egin du
eguna argitsu.
GORA BIHOTZAK ETA
AURRERA ALTSASU!

Egilea: Maite Iribar.



Ikastetxe guztietan ospatu zen Inauteri Festa. Gaztelekukoak eta Zirimarakoak ere mozorrotu ziren. Argazki gehiago noaua.eus/galeriak atalean ikusgai.



"Jolasa" zen aurtengo hitz-gakoa eta askok zintzo-demonio bete zuten proposatutakoa. Mozorroek jokoan aritzeko aukera eman zuten.



Argazkia: Larrian Gozo.

Inauterietako ekitaldietako argazki gehiago noaua.eus/galeriak atalean topatuko dituzue edota NOAUAren sare sozialetan.

Kike Amonarriz, Euskaraldiaren ondorenez

Euskaraldia: 11 egun euskaraz, eta gero zer? Hitzaldia antolatu du Euskaraldia Usurbilen sustatzen aritu den herritarren batzordeak, martxoaren 12an 18:00etan Potxoenean. Hitzordura, Kike Amonarriz soziolinguista gonbidatu du. Tolosarra elkarrizketatu du NOAUA!k.

NOAUA! Euskaraldian bizi-takoaz zer nolako iruzkina idatziko zenuke?

Kike Amonarriz: Gipuzkoa, Lapurdi, Bizkaia eta Nafarroa aldera mugitzea egokitu zitzaidan. Ilusioa, gogo berritu bat, eta batez ere euskalgintzak hurrengo urteetarako behar duen abiapuntu eta oinarri berri bat aurkitu nuen. Energia asko metatu eta sortu zen. Orain energia eta indar hori ondo bideratzen asmatu behar dugu.

Aurreikuspenak gaintitu zituen Euskaraldiko 11 egunok?

Nire aurreikuspen guztiak gaintitu zituen. Erakunde, euskalgintza, herri mugimenduen arteko elkarlana mugatuagoa izango zela espero nuen. Horrez gain, ez nuen inondik inora uste 200.000tik gora izen ematera iritsiko zirenik ezta hainbeste udalerririk parte hartuko zutenik.



Martxoaren 12an asteartea, Kike Amonarrizek hitzaldia eskainiko du Potxoenean. Arratsaldeko 18:00etan hasiko da solasaldia.

KIKE AMONARRIZ

“Iruditzen zait elkarlanak eta hizkuntza politika sendoen aktibazioak bat egin behar duela hurrengo urteetan”

Goraipatzekoa nabarmendu duzun elkarlana.

Bai eta nik uste dut hori ere herritarrek sumatu zutela eta arrakastaren gako nagusietako bat hor dagoela. Herritarrek elkarlan hori benetakoa eta serioa zela ikusi zuten. Eragile desberdinek ez ekintza sinboliko baten inguruan, ekintza praktiko baten inguruan bat egin zutela. Iruditzen zait elkarlanak eta hizkuntza politika sendoen aktibazioak bat

egin behar duela hurrengo urteetan, prozesu hau eta iaz piztu zen dinamika hau iraunkorra eta sendoa izan dadin.

Euskal Herriko zenbait txokotan aritu zara hainbat hitzaldi eskaintzen. Zer da hitzorduetan jaso duzuna?

Badago betiko diskurtsoetatik atera garela eta euskarari espazio berriak ireki zaizkiola eta jende berria ere hurbildu dela dioena. Ilusioa, konplizitatea, errespetua, behin eta berriz aipatzen diren kontzeptuak eta hitzak dira. Baita parte hartzearena eta batasunarena, alegia hizkuntzak batu egin gaituela. Inflexio puntu baten aurrean egon gaitezkeela ere leku batean baino gehiagotan jaso dut. Eta horrekin batera kezka batzuk;

badira ere batzuk esaten dutenak, agian hizkuntza ohitura al daketa gehiago espero zituztela, zenbait kasutan rolak ez direla behar bezala bereiztu, edo jende baten atxikimendua ez dela izan espero zitekeen bezalakoa. Eta gero Belarriprest gehiago nondik nora lortu. Kezka, ilusio edo gogo orokor bat ere bada; honi jarraipena nola eman. Horretaz saiatuko gara jarduten.

Euskaraldiari buruzko azken galdetegia

Ahobizi eta Belarriprest guztiok, adi egunotan zuen posta zerbitzuari. Jaso ez baduzue, heltzear izango duzue Euskaraldiari lotutako emaila. Gogoan izan, Soziolinguistika Klusterra Euskaraldiaren eragina neurtzen ari da. Horretarako Euskaraldia hasi aurretik eta amaitu berritan galdetegi bana helarazi ziguten ariketa kolektibo honetan parte hartu genuen guztioi. Hirugarrena eta azkena, aipatu moduan, egunotan jasoko dugu emailaz. Galdetegi betetzeko 5-10 minutu baino ez ditugu beharko. Eta gure erantzuna ezin garrantzitsuagoa izango da, Euskaraldiaren eraginaren neurketa ahalik eta zehatzena izan dadin.

“Denon ilusioa, partehartzea eta indarra beharko da”

NOAUA! Alderdi guztiok hobetzeko aukera izango da 2020ko Euskaraldia ezta?

Kike Amonarriz. Egin kontu, lehenengo saiakera honetan lortu den gauzarik garrantzitsuenak da egitasmo formatu bat sortu dela. Ez zen erraza formatu honetara iristea, oso formatu konplexua zen. Egin kontu Euskal Herri osoan, erakundeek, herri mugimenduek, herritarrek izena eman behar zuten, bi rol zeuden.

Ez zegoen horrelako ekintza masibo bat, azken batean norberaren konpromisoan oinarritutako proposamen praktikoa zen, ez zen erosoegia... Hori guztia formatu batera ekarri da eta orain bi gauza daude; zer hobetua badagoela ikusi da eta hurrengoan jauzi kualitatibo bat emateko konpromisoa hartuta dago. Norbanakoekin jarraituko da, baina bestalde, erakunde edo entitateetara ere jauzi egingo da. Orain bigarren

formatu hori osatzeko lan asko geratzen da. Euskaraldia nola egin behar den entitateetan, jende asko ari da jada horretan lanean. Datorren urtean formatu txukun batera iritsiko gara, baina horretarako berriro ere denon ilusioa, parte hartzea eta indarra beharko da.

Borobiltzeko, gonbidatu gaitzazu Potxoeneara.

Hausnarketa kolektibo bat egin dugu. Haibat puntu komen-

tatuko ditut, niretzat zer izan den garrantzitsua hausnarketarako, baina batez ere ariketa kolektibo bat izango da. Norberak ere zer ikusi duen esatea eskatuko zaio eta norberak ere aurrera begira zertan eta nola ikusten duen jarraipen hori. Hor garrantzitsua da ahalik eta parte hartze zabalena izatea, egindakoaren balorazio sakon bat egiteko eta aurrera begira zer aukera, behar, gogo eta nahi dauden jakiteko.

Saritu gehiago, NOAUA! kide izateagatik

Gogoan izan, NOAUA! kide izateak saria dakar! Txotx denboraldi honetan ere sariak banatu eta banatu ari gara inguruotako sagardotegiekin elkarlanean. Azken zozketako saritua Aloña Pulido Orbegoza izan da. Bi lagunentzako otordua irabazi du Urdairan. Adi, martxoaren 7an egingo dugu hurrengo zozketa. Oraingoan, Saizar Sagardotegian bi lagunentzako otordua zozketatuko dugu. Zorte on! Halako sariak tokatu nahi izanez gero, etorri NOAUA!ko egoitzara eta segituan tramitatuko dizugu bazkidetza.

Errigora

5 urte bete dituen Errigoraren 'Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura' kanpainako produktuak eskatzeko epea zabalik duzue jada NOAUA!ren egoitzan, martxoaren 22ra arte. Halere ahal den neurrian, eskaerak online bidez egitera animatzen dute Errigoratik. Inoizko produktu eskaintza zabalena duzue eskura; oliba-olio birjina esotra eta kontserbak 12 ontziko sortetan. Hauekin batera, aurtentzako estreinakoz arroza (online bidez eska daiteke soilik), eta Errigoraren kamisetak. Eskara guztiak asteotan egin, eta bi txandatan jasoko dituzu. Oliba eta kamisetak apirilaren 5etik 11ra, eta kontserba- eta arroz-loteak maiatza amaie-



Aloña Pulido Orbegoza bazkidea izan da azken sarituetako bat. Bi lagunentzako otordua irabazi du Urdairan.

ERRIGORA

“Nafar hegoaldeko produktuak eskatzeko epea zabalik duzue jada NOAUA!ren egoitzan, martxoaren 22ra arte”

ran. Ordainketak ere produktu bakoitza jasotzerakoan egin beharko dira. Informazio gehiago: NOAUA!n bertan (edo 943 360 321 telefono zenbakian) edota errigora.eus atarian.

Tapak eta aurkibideak

2018ko NOAUA! guztiak biltzeko garaia heldu da. 724-764 zenbakien bilduma osatzeko tapak eta aurkibideak prest ditugu. Doan eskura ditzakezue bazkideok kultur elkar-

teko egoitzan, gainerakoek 3 eurotan tapa eta 1,20 euroren truke aurkibidea. Koadernatzea Lizardi edo Laurok liburu dendatan egin ahalko duzue. Koadernatzea berdin ordaindu beharko dute NOAUA!ko bazkideok eta bazkide ez direnek.

Bazkideontzako hitzordua

Martxoaren 13an, NOAUA! Kultur Elkarteko bazkideen urteko batzar nagusia deitu dugu 18:00etan Potxoenean. Bigarren deialdia 18:30erako eginga dugu. Gaiok hartuko ditugu ahotan:

1-2018ko memoria eta balantze ekonomikoa.

2-2019ko egitasmoak eta aurrekontuak.

3-Zuzendaritza Batzordearen osaketa eta onarpena.

4-Galdera/erantzunak.

Batukada feminista

Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak antolatuta, martxoaren 1ean, 15ean, 29an, apirilaren 12an eta maiatzaren 10ean eta 24an, 17:00-19:00 artean, Udarregi Ikastolako erdiko aretoan.

■ Izen ematea bideotatik egin: Parekidetasun Sailaren egoitza, parekidetasuna@usurbil.eus, 943 377 110.

Gazteen batukada

Gaztelekuak antolatuta DBH1koentzat, martxoaren 30ean, 17:00-19:00 artean Potxoenean.

■ Izen ematea aurrez Gaztelekuan (943 371 050).

Sorospen eta sorosle ikastaroa DYaren egoitzan

DYak antolatuta, martxoaren 11tik apirilaren 2ra, astelehenetik ostiralera, 19:00-21:00 artean Munalurako egoitzan.

■ Izen ematea: 943 46 46 22 dyagipuzkoa.com

Martxoaren 22an Origami tailerra Sutegin

Udalak antolatuta 6 urtetik gorakoentzat, martxoaren 22an, 17:30-19:00 artean, Sutegi udal liburutegian.

■ Izen ematea, martxoaren 6tik 16ra liburutegian.

Ikastaro irekiak TaPunturen egoitzan

■ Gifak sare sozialetan

Martxoak 25 astelehena.
Ordutegia: 9:00-13:00
edo 16:00-20:00.
Orduak guztira: 4.
Irakaslea: Arkaitz Sukuntza.
Prezioa: 35 euro.

■ Lanerako teknikak eta tresnak

Martxoak 26 asteartea.
Ordutegia: 9:30-13:30
edo 16:00-20:00.
Orduak guztira: 4.
Irakaslea: Ainhoa Iribar.
Prezioa: 35 euro.

■ Komunikazio plana

Martxoak 27 asteazkena.
Ordutegia: 9:30-13:30
edo 16:00-20:00.
Orduak guztira: 4.
Irakaslea: Mikel Olaiz.
Prezioa: 35 euro.

■ Microsoft access

Martxoak 28 osteguna.
Ordutegia: 9:30-13:30
edo 16:00-20:00.
Orduak guztira: 4.
Irakaslea: Ainara De Miguel.
Prezioa: 35 euro.

Errefuxiatuei laguntzen

2019ko otsailaren 22an etorri ziren Udarregi ikastolako LH6. mailara, Xabier Zabaleta eta Aitor Garaiurrebaso gurasoak eta Zaporeak-eko kideak, Kiosen (Greziako irla bat) bizitako esperientzia kontatzera. Esperientzia kontatzeaz gain hango errefuxiatuak nola bizi diren kontatu ziguten, gu jabetzeko eta errefuxiatuei laguntzeko.

Zer da Zaporeak?

Zaporeak gobernuz kanpoko erakunde (GKE) bat da eta beraien eginkizuna errefuxiatuei laguntzea da: janaria ematea, arropa ematea... Gaur egun Lesbosen dabilta lanean, sukalde berri batekin.

Errefuxiatu hauek bide la-tza egiten dute Lesbosera iristeko, batzuk Siriatik etortzen dira eta asko bidean hil egiten dira. Gainera kanpamenduan baliabideak eta bizi-baldintzak ere ez dira onak, ondorioz bizi-kalitate oso txarra dute.



Errefuxiatuak laguntzeko azoka solidarioa antolatu dute Udarregiko ikasleek.

LH6KO IKASLEAK

“Martxoaren 15ean arratsaldeko 18:00etan azoka bat egitea erabaki dugu eta han biltzen den dirua Zaporeak erakundeari ematea, Lesboseko proiekturako”

Zuk ere lagundu dezakezu

Egoera hau ezagututa, LH6ko ikasleek martxoaren 15ean arratsaldeko 18:00etan azoka bat egitea erabaki dugu eta han biltzen den dirua Zaporeak

erakundeari ematea, Lesboseko proiekturako. Horregatik, zuek azokara etortzea gustatuko litzazuke. Denetik egongo da eta erosketak eginez laguntza handia eman dezakezue.

LH6ko ikasleak.

Eneko Haritza ipuin kontalaria Sutejin

Usurbilgo Udalak antolatuta, HH4ko ikasleei zuzenduriko emanaldia eskainiko du martxoaren 13an, 18:00etan Sutejin udal liburutegian.

Aginagan indarra eta potentziako jendea

“Aginagako eskola txikiko ikasle eta irakasleak gara eta auzo zoragarri honetan ikasten dugu. Gure eskolan 42 ikasle gaude. Urteroko legez, Gabonetan eta Santa Ageda bezpera egunean, auzoan zehar kantatzera irten ginen. Aginagako auzokideek eskuzabaltasuna adierazi zutenez, ikasturte bukaerarako prestatuta genuen irteerarako autobusa dohainik izatea lortu dugu. Beraz, mila esker zuen laguntzagatik”.



Ikasturte amaierako irteerarako autobusa doan izatea lortu dute.

Ziortzako Kanpaldiko aurre matrikula epea zabalik

Udako kanpaldirako aurre matrikula epea zabaltu dute Ziortza Gazte Elkartekoek. Honako hauek dira aurtengo txanden datak:

■ 1. txanda (DBH3-4):

Uztailak 4-17.

■ 2. txanda (DBH1-2):

Uztailak 17-27.

Martxoaren 10a bitarte

Ziortzatik adierazi digutenez, “aurre matrikula gauzatzeko epea martxoak 1-10 bitarte egongo da zabalik. Interesa izanez gero bidali mezu bat ziortzakanpaldia@gmail.com helbidera, gaztearen izen abizenak eta zein txandatarako etorri nahi duen adieraziz”.



Bi txanda antolatu dira.

Ate irekien eguna

Mahaspildegina

Martxoaren 30ean eta 31n Mahaspildegina elkartea eza-gutu eta bertako bazkide egiteko aukera ezberdinen berri emango da. Martxoaren 30ean larunbata, arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara eta martxoaren 31n igandea, goizeko 11:00etatik 13:00era.

Informazio gehiagorako, ondoko epostara idatzi:
mahaspildegina@gmail.com

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA

EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK · TOSTAK
MENU BEREZIAK

943 36 91 39

www.artzabaljatetxea.eus

Oriako 25. Jaitsiera larunbatean

Mende laurdena bete duen Orio Arraunketa Elkartearen kirol proba larunbatean (martxoak 9) ospatuko da errioan, Aginagatik Oriora. Gizonezkoen 8. eta Emakumezkoen 5. Bautyauto Banderak izango dira jokoan. Bi distantziatako probak ikusi ahaliko dira errioan. Bat, 4.000 metrokoa Saikola-Orio artean, bestea 6.000 metrokoa Mapil-Orio artean. 25. Oriako Jaitsiera, larunbat arratsaldeko 16:00etan abiatuko dute.



83 ontzik parte hartuko dute hitzorduan.

Andatzakoen hurrengo txangoa, martxoaren 24an

Amezketak, meategiak, Parda-ri, Ganbo, Ganbo Txiki, Arrubigaña eta Amezketak. Honako bira hau osatzera gonbidatzen gaitu Andatza M.K.T.-k martxoaren 24an, hilabeteko azken aurreko igandean.

22 kilometroko ibilbidea

Guztira 22 kilometroko ibilbidea. Goizeko 7:30ean finkatu dute autobusez Oiardo Kiroldegitik abiatzeko hitzordua.

Ohi denez, izena aurrez eman beharko da. Informazio gehiago: andatza.com



Amezketatik abiatu eta Amezketan amaituko da ibilbidea.

Martxoaren 15ean, Korrika Batzordearen bilera

Apirilaren 12an gure artera helduko da euskararen aldeko lasterketa. Korrika Batzordea lanketa betean da honez gero. Hurrengo bilera irekia martxoaren 15erako finkatu dute, 17:30ean Etumeta AEK euskarategian. Gogoan izan, arropa eta kilometroak erosiz, edota Korrika Laguntzaile izanez lagundu dezakegula euskararen aldeko bi urteroko ekimena.

Informazio gehiago:

607 609 397

usurbil@ae.k.eus

korrika.eus

Futbola Haranen

Martxoak 09, larunbata

■ 9:30 Alebin neskak:

Udarregi 6A-Urnieta 5

■ 10:45 Infantil mutilak:

Usurbil A-Vasconia A

Eskubaloia

Oiardo kiroldegian

Martxoak 09, larunbata

Eskola Kirola

■ 09:30 Alebin mutilak:

Udarregi 5A-Udarregi 5D

Udarregi 6A-Langile A

■ 10:30 Infantil neskak:

Udarregi B-Ordizia Enirio

■ 11:45 Infantil neskak

(Fase Finala-G1):

Udarregi A-Pitch Chocobarra

Bidasoa Irun A

■ 13:00 Infantil mutilak

(Fase Finala B-G1):

Udarregi B-Het Zintzarri

Usurbil K.E.

■ 16:00 Kadete mutilak

(2. fasea, Euskadiko Txapelketa):

Usurbil K.E.-Neumaticos

Bayona Pulpo EK

■ 17:30 Kadete neskak

(2. fasea, Euskadiko Txapelketa):

Usurbil K.E.-Berango Urduliz

Eskubaloia

■ 19:00 Jubenil mutilak

(2. fasea, Euskadiko Txapelketa):

Usurbil K.E.-Gran Camping

Zarautz ZKE

Emakume Master

Cup Lehiaketa

Martxoak 10, igandea

Finlerdiak Erreterian

Leire Garai-Leire Etxaniz

Olatz-Maite Ruiz de Larramendi

Iera Agirre-Olatz Arrizabalaga

Patri Espinar-Miriam Arrilaga

Joko Garbi

Zubietan

Martxoak 17, igandea

Finala.



ETXEBIZITZA

Salgai

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatu handia portalean. 677471648

Munalurran 3 logelako pisua salgai, igogailu eta fatxada berritua, 688618485

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

San Inazio kalean 100 metro-tako etxebizitza salgai. Sukaldea jantokiarekin, 25 metroko saloia, 2 komun, 3 logela haundi eta bi balkoi ditu. Eguzkitsua eta ia es-trenatzeaz. 610 52 78 32

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitza 78 m² eta garajeak 50m². Tel. 676 453 176.

90 m² pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11 m²- terraza,

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharra bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

8 m² trasteleku eta bertan 33 m²-ko garajea erosteko aukera. 606 877 856

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalefakzioa. Dena berrituta. Fatxada ere bai. Garajea 40 m² eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Gure Borda salgai: 5.600 m², borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

Alokairuan

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. Tel. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila nabil. Ez oso garestia. 2 edo 3 logela eta Usurbilen edo Lasarten. 642 424 699.

Alokairuko pisu baten bila gabilta. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsuak eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten

bila gabilta, bikote bat gara, biak lanarekin, informea ditugu. 675595294

Duplex bat alokatzen da Txaramunto kalean. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, bulego bat, terraza bat eta garajea. 625 702 807.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxia. Prezioa negoziatzeko. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatzikalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atarekin. Goiko kalea 2. 676453176

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

34m²ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekatzikalean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriodon 4an. Banaka edo biak batera. Tel. 663 031 803

120 metro² lokal bat salgai. Alpe-rrorburu 3an. 699 306 158

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Iruarkaitz enpresan lan egiteko igeltseroa bilatzen da. Esperientziaduna. Interesatek bidali mezu bat iruarkaitz@hotmail.com helbidera.

Usurbilgo Alkartasuna Baserritarren Kooperatibak administratzaile dendi baten beharra dauka, berehala lanean hasteko. Interesatua bazade, deitu 943 361 114 telefono zenbakira, edo bidali zure CV alkartasuna@usurbil.com

Finantza eta aseguruetak kudeatzailer behar da Buruntzaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetan, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: Profesional-

tasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrak emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrak emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: gorputzaldiak@udarregi.eus

Kamarero eta sukaldari laguntzailea behar dira Aratz errete-gian, info@restaurantearatz.com

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catallanaocidente.com. 699 760 873.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

29 urteko mutil bat naiz eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen esperientzia dauka. Orduka edo interno bezala. 631696636.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Interna moduan lan egingo nuke. Tel. 602 069 147

Interna edo externa moduan lanean berehala hasteko prest. Neska jatorra, arduratsua eta langilea. 604166831.

Lan bila nabil. Garbiketan, pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala, orduka. Berehala lanean hasiko nintzateke. 632 140 789.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Interna, externa edo orduka lan egiteko. Berehala lanean hasiko nintzake. 637 106 649.

Lan bila dabilen mutil bat naiz, esperientzia ere erreferentziekin



Zorionak Nahia! Ederki ospatu genuen zure urtebetetze eguna. Muxu asko familiakoen partez.



Zorionak Jon eta Iera!

Martxoaren 7 eta 11n zuen urtebetetzea izango da!!! 30 eta 11 muxu handi handi biontzakoooo... Familia osoaren partezzzz....



Zorionak Luken

Pierre!! Martxoaren 6an 2 urte egin dituzu!! Orain bai esan dezakezula: Biiiiii!!! Muxu bat etxekoan partez.



Zorionak Oihan!! 6 urte beteko dituzu martxoaren 11n eta etxeko denak bihotz bihotzez esaten dizugu "maite zaitut kuttuna"!



Zorionak Ieraaaa! Martxoaren 11n,

11 urte beteko dituzu!!! Gure etxeko tximeletarentzako txokolatezko 11 muxu handi handiiii... Zure familia handiaren partezzzz....



Zorionak Urko!!!

Martxoaren 2an, 3 urte bete dituzu. Segi holako alaia eta zoriontsua izaten. Etxeko guztiak txoratzen gaude zurekin. Ondo pasako zenuela, muxu handi bat!

pertsona helduak zaintzen. Ospitalean, paseatzeko eta pozik edukitzeko prest nago. Berehala lanean hasiko nintzake. Interno edo externo bezala. 603 595 656

Emakume arduratsua naiz, eta lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiten. Interna moduan. 663 488 438

Garbiketa lanetan edo pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. Interna edo externa bezala. 617 064 054

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo lukeen neska bat naiz. Esperientziarekin. 663 443 736

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna edo externa bezala. Tel. 619 355 819

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna edo externa bezala. Tel. 633 101 867

Emakume euskaldun bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko. Astean 2 egunez, goizez edo arratsalde. Urtarrietik aurrera. 671 547 567

Neska arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, umeak zaintzen edo garbiketan. 671277904

Mutil arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen. Interno, externo edo gauak eritxean egiteko. Erreferentziak eta esperientziarekin. Tel. 603 595 656

Lan bila nabil. Helduak zaintzen. Interno, externo edo orduka. 631 996 636.

Lan bila nabil. Paperak egunean. Helduak zaintzen. Interna, externa edo orduka. 631 856 814.

Lan bila nabil. Interna bezala. Tel. 677 256 701.

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Etxeko lanak egiten, umeak edo nagusiak zaintzen. Orduka, interna edo externa bezala. Segituan lanean hasiko nintzake. 637 106 649.

Lan egin nahi dut. Interna edo externa bezala. Pertsona helduak zaintzen, supermerkaturak, tabernetan... Tel. 682 723 520

Pertsona helduak zainduko nituzke, asteburu, jai egunetan eta gauean,

baita erietxean ere. 606 661 048 / 943 404015.

Jende heldua zaintzeko prest. Interna moduan edo orduka. Dokumentazio osoa dut. 682 72 35 20.

Neska euskalduna, Usurbilen umeak zaintzen egingo nuke lan udara honetan: ekaina, uztaila edota abuztuan (goiz, arratsalde edo orduka). 617263123.

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Etxean, ospitalean, gauean, externa bezala, orduka edo asteburutan. 671763558

Lan bila nabil interna edo externa bezala. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Urtebeteko esperientzia. Arduratsua, erreferentzia onekin. 666 295 450

Garbiketa egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko. Esperientzia duen neska, arduratsua. Berehala lanean hasiko nintzake. 637 106 649

Lan bila nabil, pertsona helduak

zaintzeko. Ospitalean, etxean, gauean. Garbiketa orokorrean ere bai. 671 763 558

Lan bila nabil etxeak garbitzen edo umeak zaintzen, ekaina eta uztaila, goizetan eta Usurbilen. 608201745.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna, externa edo orduka. 632 541 872

Emakume bat naiz, eta lan bila nabil. Interna, externa, orduka. Helduak edo umeak zaintzen. 676 188 411

Neska bat naiz, eta lan bila nabil. Orduka lan egingo nuke. Helduak edo umeak zaintzen. 619 355 819

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, hospitalean, baserrian. 632090146

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, hospitalean, baserrian. 632793747

Lan bila nabil. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia

eta erreferentziekin. 662 910 181

Emakume bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Geriatriako eta lehen laguntzako ezagutzak ditut. Esperientzia etxeko lanetan eta antolamenduan. Erreferentziak ditut. 612 495 429

Emakume bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Goizez edo arratsalde. Esperientzia daukat. 690 336 444.

Lan bila nabil. Orduka eta arratsalde. 663 776 93

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, gauean, asteburutan, externa bezala edo garbiketa lanean. 671 763 558.

Interna moduan lan egin nahi dut adinekoak zaintzen. 25 urteko lan esperientzia dut. 633 73 64 26

Lan bila nabil, etxeak garbitzen, etxeko lanak egiten edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia ere erreferentziekin. Tel. 632 576 258

Mutil arduratsua baserriko lanetarako eskaintzen da. 661118892.

18 urteko neska euskaldun herriar esperientziaduna naiz. Aste osoan zehar arratsalden umeak zainduko nituzke. 688817429.

Lan bila nabil. Umeak zaintzen, garbiketa lanak egiten, orduka, interna bezala. 642 238 949

BESTELAKOAK

Iturgintzako materiala salgai. Tel. 652 765 583.

Oxelo markako patinete bat azaldu da Txaramunto kalean. Zurea bada deitu: 629 631 838.

Usurbilen bizi naiz eta Lehen Hezkuntzako oposaketak prestatzeko talde bat osatu nahiko nuke ahalik azkarren. Klase partikularak jasoko nituzke 2017. urtean atera zuen batekin, orduko prezioa adostuz. Ima. 688681557

Diamante, madarines eta isabelito japonen arrazako txoritxoak salgai. 659 185 107

4 gurgildun karro elektrikoak salgai. Scooter markakoa. Egokia elbarrituentzat. Tel. 664 609 596

3 metroko toldo marroia eta ariketak egiteko trifasikoa salgai. Prezioa adosteko. 676 39 89 33

Ingleseko klaseak ematen ditut 3-4 urteko haurretatik hasita. Klase dibertigarri eta alaiak gatzetxoentzat eta azterketen prestakuntza nerabeentzat. CPE tituluduna. Natali 635909606

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan 696014585

Ingleseko eta frantseseko klaseak ematen ditut, etxetara joanda. Jokin. Tel. 600 766 068

Udarregi Ikastolan klase partikularak emateko jende bila gabiltza. Interesa baduzu pasa ikastolatik edo deitu! Telefono zenbakia: 943 36 12 16

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzailak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epategia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGupuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneako Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaual Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 07	GIL MARTIN	Kale Nagusia 24. Lasarte
Ostirala 08	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
Larunbata 09	ASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Igandea 10	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Astelehena 11	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Asteartea 12	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola	9. Lasarte
Asteazkena 13	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Martxoak 07 - Martxoak 17

Osteguna 14	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Ostirala 15	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Larunbata 16	GIL MARTIN	Kale Nagusia 24. Lasarte
Igandea 17	GIL MARTIN	Kale Nagusia 24. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
CASTILLA-LARBURU
URBIEA KALEA, 7 HERNANI
943552941

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda martxo

08 ostirala

■ **Martxoak 8: greba feminista** Ikus 7. or.

09 larunbata

■ **Oriako 25. Traineru Jaitsiera.** 16:00etatik aurrera. Aginagan. 4.000 metroko proba Saikolatik; 6.000 metrokoa Mapiletik.

■ **Bihotz biriketako Suspertze tailerra** DYArengo egoitzan. 17:00etatik 19:00etara. Izen-ematea: DYAgipuzkoa.com


10 igandea

■ **"El Rey" filmaren proiektzioa Sutegin** 19:00etan filmaren proiektzioa Sutegin auditorioan.

Igande honetan 'El Rey' filmaren proiektzioa Sutegin

Juan Carlos Espainiako errege emerituaz dena dakigula uste badugu, okergabiltza. Argitara eman ez diren pasarteak badira oraindik. Pasarteok aurrez arrakasta handiko antzezlan batean eta orain "El Rey" filmean bildu dituzte Alberto San Juanek, Luis Bermejok eta Willy Toledok. Aitzaga Kultur Elkarteak igande honetan proiektatuko du filma Sutegin arratsaldeko 19:00etan.

Filma hasi baino ordubete lehenago, Willy Toledo aktoreak filmari buruzko solasalditxo bat eskaintzeko zen Sutegin erakusketa aretoan. Hala iragarri genuen aurreko asteko aldizkarian. Azken orduan baina, aktoreak ezingo du etorri eta ber-



Sarrerak aurrez erosi daitezke Aitzagan eta Txirristan, 5 eurotan.

tan behera geratu da solasaldia. Filma, hala ere, esandako orduan eskainiko dute. 19:00etatik aurrera Sutegin auditorioan. Sarrerak aurrez salgai izango dituzue 5 eurotan Aitzagan eta Txirristan.

Oriako Traineru Jaitsiera

Larunbat honetan, arratsaldeko 16:00etan hasiko da arraun proba. Bi proba ezberdin iragarri dituzte. 4.000 metrokoak Saikolatik Oriarako zatia osatuko du. 6.000 metrokoak, Mapiletik Oriara bitartekoa. Gizonezkoen 8. eta Emakumezkoen 5. Babyauto Banderak izango dira jokoan.

Bihotz-biriketako suspertze tailerra

Larunbat honetan, 17:00etatik 19:00etara, bihotz-biriketako suspertze tailerra eskainiko dute DYArengo egoitzan. Helduak (aita/ama, aitona/amona, osaba/izeba...) 6 urtez gorako hiru umeekin eman dezake izena. Prezioa: 8 euro.

Informazio gehiago 943 46 46 22 edo www.DYAgipuzkoa.com web orrialdean.

Datozenak

Jaietako ekitaldien aurrekontuak martxoaren 15erako aurkeztu behar dira

Ekainaren 28tik uztailearen 2ra ospatuko diren Usurbilgo festak prestatzen segitzeko Jai Batzordearen bilera berria iragarri dute martxoaren 25erako 18:00etan Potxoenean. Lehenago orde, Santixabeletan ekintzaren bat antolatu asmo dutenek hilaren 15era arteko epea dute aurrekontuak aurkezteko. Informazio gehiago Potxoenean edo 943 371 999 telefono zenbakian.

Martxoaren 30ean, Kantu Taldearen 10. urtemuga

Martxoak 30, larunbata

■ 11:00 Ongietorria hamaiketakoarekin Askatasuna plazan.

■ 12:00-14:00 Kantujira Usurbilgo kaleetan, Mikel Laboa plazatik abiatuta.

■ 14:00-18:00 Bazkaria Aginagako Urdaira sagardotegian.

Prezioa: 31 euro. Izen ematea: martxoaren 14ra arte, 630 252 939 (Lurdes) telefono zenbakian. Oharra: leku kopuru mugatua.

Usurbil Autoak
MEKANIKA-KARROZERIA

SUSTITUZIO KOTKEA DOAN!!

ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA

943 36 10 79

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8

943 370 008

EROSKI/city

kale Nagusia 10, USURBIL

943 361182

OSASUN GIDA 2019



USURBIL OPTIKA

Bigarren lente pareta doan:
lente progresiboetan,
irakurtzeko lenteetan
eta ikus-urruneko lenteetan

2. lente pareta doan

2x1

PROGRESIBOETAN
IRAKURTZEKOETAN
IKUS-URRUNEKOETAN

Zubiaurrenea, 10

943 370 269 • 675 708 654



Irati Ibargoien FISIOTERAPIA - OSASUNA

ZERBITZU
BERRIA

PSIKOLOGIA

•Terapia indibidualak
•Mindfulness

PILATES TERAPEUTIKOA

•Indibiduala
•Taldetakoak

BESTE TERAPIA MOTAK

•Presoterapia



943 53 92 66 Puntapax 6B, beheka ez. USURBIL

FISIOTERAPIA

•Amatasun prestakuntza
•Zoru Pelbikoko tratamenduak

Lesioak: traumatologikoak, posturalak,
kirolekoak, ATM disfuntzioak, zoru pelbikoa...

Teknikak:

•Terapia Manual Ortopedikoa (TMO)
•Fisioterapia eta osteopatia funtzionala
•Puntzio lehorra
•FIM (fibrolisis instrumental miofascial)

ZERBITZU
BERRIA



Iturralde botika

Tomas Iturralde botika

33/17 PEZ

•Dosifikazio sistema pertsonalizatua
•Dermofarmazia
•Produktu homeopatikokoak
•Maisu formulak

Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95

Haginak ondo dabilizanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

RPS: 28/17



Nagusia 10, 1.C4 943 37 08 78 USURBIL



Lizarralde ORTOPEDIA

✓ OSAKIDETZAREKIN HITZARMENA

✓ Produktu ortopedikoen
alokairu zerbitzua
(oheak, aulkak, garabiak...)
✓ Arreta pertsonal eta
espezializatua

✚ Teknikari ortopeda kontsulta

👤 Aholkularitza

🏠 Produktu gama zabala

Kazkazuri 1 baxua, Olartzun - 943 543 585/ 688 678 583
www.lizarraldeortopedia.eus



•Kirol eta terapeutiko masajeak

Txirrindulariaren azterketa
biomekaniko eta osteopatikoa

943 366 197 Kale Nagusia, 44- beheka • LASARTE-ORIA

Öinutsik

podologia zentroa

etorri zaitez zure oinen eta posturaren
azterketa bat egitera!

Sistematikoki osasun
oinetatik

943 11 09 54 zubiaurrenea 2

URDAIRA



Sagardotegia

astelehenak itxita

Aginaga 943 37 26 91

OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

943 55 68 94

Osinaga bailara, HERNANI



LARRE-GAIN DOLARE SAGARDOTEGIA

Urtarrilaren 18tik maiatzak 6ra
TXOTX GARAIA
Hernanitik autobus zerbitzu propioa
Astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria **Ereñotzu - Hernani**
Tel: **943 55 58 46** Mugik: **616 287 867**

www.iruinsagardotegia.com



IRUIN sagardotegia

TXOTX denboraldi
berria 2019. primerako
sagardoekin
943.361.229



ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • **943 55 69 81**



Kalezar 39, USURBIL sidreria@sidrassaizar.com www.sidrassaizar.com

943 37 39 95

aginaga

SAGARDOTEGIA

Hotela **

URTE OSOAN
ETXEKO SAGARDOA
TXOTXETIKI!
ORAIN, BERTAN LOTAN
GELDITZEKO AUKERA!
ASTELEHENETAN ITXITA

943 36 67 10

Aginaga, USURBIL www.aginagasagardotegia.com



Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!

%100 bertako sagarra

Tel: 943 365 031

Santuenlea